



## OSOKO BILKURAREN AKTA

SAIOAREN DATUAK	
<b>Kide anitzeko organoa:</b>	Osoko Bilkura
<b>Deialdi-mota:</b>	Ohikoa
<b>Data:</b>	2023ko irailaren 14a
<b>Iraupena:</b>	19:17tik 20:08ra
<b>Lekua:</b>	Udaletxeko osoko bilkuren aretoa
<b>Udalburutza:</b>	Unai Gutierrez Urkiza
<b>Idazkaritza:</b>	Oiartza Urquijo Alaña
SAIORA BERTARATZEA	
ALKATE-UDALBURUA	BERTARATU DA
UNAI GUTIERREZ URKIZA	BAI
ZINEGOTZIAK	BERTARATU DIRA
CRISTINA LARRAZABAL IBAÑEZ DE ELEJALDE	BAI
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA	BAI
MARIA INMACULADA ELORZA BERGARA	BAI
MARIA ELENA URCELAY ALTUNA	BAI
NEREA IDIGORAS LASAGA	BAI
MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA	BAI
ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA	BAI
ANDER BARANDICA SANTOS	BAI
ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE	BAI
ANDRES LAFUENTE OTXOA	BAI



Murgian, 2023ko irailaren 14an, 19:17ak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura, eta Oiartzua Urquijo Alaña andreak Udalbatzako idazkari lanak egin ditu.

Idazkariak kide anitzeko organoa behar bezala eratu dela egiaztatu ondoren, udalburuak bilkurari hasiera eman, eta gai-zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu dira.

## 1.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA.

Aurreko bilkuretako aktak ikusita, uztailaren 13ko ohiko osoko bilkuraren eta uztailaren 31ko ezohiko osoko bilkuraren aktak onetsi dira, uztailaren 1ko aktaren zortzigarren eta bederatzigarren puntuak zuzenduta. Honela dio hitzez hitz:

### "8. TXOSTENAK.

*ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta gaur egun abian diren lizitazio-prozeduren berri eman du: Ludoteka Zerbitzua, Liburutegia eta ordutegi zabaleko zerbitzua, eta udal-eraikinetako berogailua mantentzeko zerbitzua. Balio-iritzien, aurkeztutako dokumentazioaren eta horien inguruko gai orokorren gutun-azala ireki direla jakinarazi du.*

*ALKATE-UDALBURUAK uztailaren 31ko ezohiko osoko bilkuran aztertuko diren gaien berri ematen jarraitu du. Horren xede Udalean izapidetzen ari den ofiziozko berrikuspen-prozedurari buruzko ebazpen-proposamen txostena izango dela esan du. Jarraian, ALKATE-UDALBURUAK Murgiako UE7 Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko informazioa eman du. Adierazi duenez, gai hori ere osoko bilkuran aztertuko da, eta Udalak hasierako onespina emateko eta Plana behin-behinean onartzeko aurkeztutako alegazioa onartzea proposatuko da.*

*Amaitzeko, datorren ostiralerako Batzordearen deialdiaren berri bihar emango dela esan du ALKATEAK, eta bertan kirol- eta kultura-elkarteen eta guraso-elkarteen esparruan ematen diren dirulaguntzak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen langileak kontratatzeko ematen zaizkien dirulaguntzak jakinaraziko direla.*

## 9.- GALDERAK ETA ESKAERAK.



ANDER BARANDICA SANTOS zinegotziak hitza hartu, eta herritarren kexa bat helarazi du udal-igerilekuetara sartzeko sistemaren inguruan, zehazki, sarbide-tornuak ez dabiltzalako. Alkate-udalburuak adierazi du arazoa egon badagoela eta hainbat jarduera egin direla (sarreran izen-abizenak, identifikazio-eskumuturrekoak...), Kiroldegia eta proiektuan islatutako tornuak eraberritu eta handitzeko obraren bidez behin betiko konponbidea eman arte.

MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA zinegotziak hitza hartu, eta, EAJ-PNV Zuia udal-taldearen izenean, baltsa proiektuaren inguruan egiten diren bileretara joatea eskatu du. ALKATEAK esan du inolako arazorik gabe deituko zaiela etorkizuneko bileretara.

ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA zinegotziak hitza hartu, eta udan sua erabiltzea debekatzen duen foru-aginduari buruz galdetu du, hots, ea udalak suteen kontingentzietarako plan bat duen. ALKATEAK esan du, basozainaren irizpide teknikoaren arabera, ez dela beharrezkoa, udalerriko baso motak neguko denboraldian su hartzeko aukera handiagoa duelako. Hitza ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE zinegotziari eman, eta zentzu berean amaitu du honek bere argudioaren ondoren. ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA zinegotziak gai horri buruzko ezagutzak freskatzeko aukera aipatu du. AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA zinegotziak azaldu duenez, Aldundiak jardunaldi batzuk egin zituen Administrazio Batzarretarako, eta Aldundiari jardunaldi berberak berriro egiteko aukera eskatzeko eskaini zion. Udalbatzak gaia eztabaidatu du.

ANDRES LAFUENTE OTXOA zinegotziak hitza hartu, eta bideak garbitzeko aurreikusitako datak eta zerbitzu hori egingo duen enpresa zein den galdetu ditu. ALKATEAK esan du abuztuko lehen hamabostaldian egingo dela eta zerbitzu hori ia zoko enpresa berak egingo duela.

Zinegotziak jarraitu ta galdetu du ea posible litzatekeen Zuiako herrietan aire zabaleko udako zinema eskaintzea. INMACULADA ELORZA BERGARA zinegotziak hitza hartu, eta aurten Corterraza ekitaldia aurreikusita dagoela adierazi du. Horretan, Murgian egitea pentsatuta dagoen udako zinema bat barne hartzen da.

Udalbatzak horrelako jarduerak Zuiako herri guztietara hurbiltzeko aukeraz eztabaidatu du, harrera ona duelako. Hala, NEREA IDIGORAS LASAGA zinegotziak azpimarratu du oso garrantzitsua dela zerbitzu eta jarduera guztiak herritar guztiei hurbiltzea.

Bertaratutakoei 20:14an eman zaie hitza.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, ALKATE-UDALBURU jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:36an, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.



Idazkaritza,“.

## 2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Alkatetzak emandako ebazpenak ikusirik, hau da, uztailaren 7ko 222/2023 Dekretutik irailaren 7ko 329/2023ra bitartekoak, Udalbatzak ez du galdera edo oharrik egin.

## 3.- POSTA OFIZIALA.

2023ko uztailaren seitik udaleko erregistro orokorrean sartu eta atera den dokumentazioa ikusita, Udalbatzara bertaratutako kideek honako galdera hauek egin dituzte:

ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA zinegotziak zerbitzu orokorretako 2023.07.17ko S-T-688, S-T-689 eta S-T-690 gaiari buruz galdetu du, *"Kiol anitzeko kantxa egokitzeko hirigintza-txostena"*, *"Egurtegia eraikitze eta bankuak egokitzeko hirigintza-txostena"* eta *"Gizarte-zentroa edertzeko hirigintza-txostena"* izenburua dutenei buruz. Alkate-udalburuak gaia azaldu du eta horri buruzko informazio gehiago bilduko dela eta Udalbatzako kideei helaraziko zaiela adierazi du.

ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA zinegotziak zerbitzu orokorretako 2023.07.31ko S-T-740 eta 2023.08.14ko S-T-782 gaiari buruz galdetu du, hurrenez hurren, *"Zisterna-kamioien bidez edateko ura garraiatzeko zerbitzua eskatuz"* eta *"Ziorrogako Estrupizako biltegira edateko ura garraiatzeko zisterna-kamioi baten eskaera bidaliz"* izenburua duteneti buruz. ALKATEAK gaia azaldu du.

ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA zinegotziak zerbitzu orokorretako 2023.08.09ko S-P-760 gaiari buruz galdetu du, *"ALHAO iragarkia, Gorbeia Inguruak Partzuergoa desegiteari hasierako onespina emateko dena"* izenburua duenari buruz. ALKATEAK gaia eta



egindako prozedura azaldu ditu, baita ildo horretan hartu beharreko hurrengo erabakiak ere.

ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA zinegotziak hirigintzako 2023.07.11ko E-P-2237 gaiari buruz galdetu du, "*Gurutze auzoa egokitzeko proiektuaren premiari buruzko txostena egiteko eskaera; aurrekontu orokorra: 1.907.210,31 euro*" izenburua duenari buruz. ALKATEAK esan du horri buruzko informazioa bilduko duela eta horren berri emango duela.

ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA zinegotziak zerbitzu orokorretako 2023.07.14ko E-P-2297 gaiari buruz galdetu du, "*Argiteria-instalazioak mantentzeari laguntzeko faktura: 677,60 euro*" izenburua duenari buruz. ALKATEAK gaia azaldu du.

ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA zinegotziak zerbitzu orokorretako 2023.09.05eko gaiari buruz galdetu du, "*EXCAVBORek obra-aurrekontua aurkeztu du Otxandioko errobedal bidea egiteko. Zenbatekoa: 22.655,55 euro*" izenburukoari buruz. ALKATEAK gaia azaldu du.

ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE zinegotziak zerbitzu orokorretako 2023.07.27ko E-P-2407 eta 2023.07.18ko E-P-2338 gaiei buruz galdetu du, hurrenez hurren, "*6535-DZC matrikulari dagokion 14,59 euroko faktura (880.583 txostena)*" eta "*6535-DZC ibilgailuaren IAT, 57,34 eurokoa*" izenburupekoari buruz. ALKATEAK gaia azaldu du.

Ez da inolako galderarik edo oharrik egin ordainketa-aginduen zerrendari buruz.

#### **4.- GORBEIAKO EHIZA BARRUTIAREN ESLEIPENA ONARTZEA.**

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta 2023ko irailaren 12ko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du.



Kontuan hartuta Zuiako Udalak, Ametzaga Zuia, Bitoriano, Gilierna, Lukiano, Markina, Murgia eta Sarriako kontzejuek eta Oroko Andre Mariaren santutegiak VI-10156 "Gorbea" ehiza-barrutia berritzea erabaki dutela. Zuiako Udala da ehiza-barruti horren titularra, jabeen elkartearen ordezkari gisa.

Kontuan hartuta ehiza-barruti hori sortzean lursail guztiak sartuko liratekeela, titulartasun pribatukoak zein publikokoak, barruti horretarako ezarritako eremuaren barruan, eta eragindako lursailen jabeen baimena jaso ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluan aipatzen den baimena eman ahal izango luketela,

Kontuan hartuta lursail publikoen barruan onura publikoko mendi (OPM) hauek sartzen direla:

- 733 zenbakiko OPM, Aldapa, Murgiako kontzejuaren jabetzakoa.
- 734 zenbakiko OPM, Altube, Zuiako udalaren jabetzakoa.
- 735 zenbakiko OPM, Amezola, Ametzaga-Zuiako kontzejuaren jabetzakoa.
- 736 zenbakiko OPM, Añabarza eta Guitabe, Bitorianoko kontzejuaren jabetzakoa.
- 737 zenbakiko OPM, Arambaz, Lukianoko kontzejuaren jabetzakoa.
- 742 zenbakiko OPM, Lambe, Murgiako kontzejuaren jabetzakoa.
- 743 zenbakiko OPM, San Fausto, Giliernako kontzejuaren jabetzakoa.
- 745 zenbakiko OPM, Markinako kontzejuaren jabetzakoa.

AZTERTUTA 2023/1/S04.10.03.02 zki.ko espedientea,

AZTERTUTA ZCP-01-23 zki.ko kontratazio-prozedura,

IKUSITA 2023ko uztailaren 13ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartutako plegu teknikoak eta administratiboak,



IKUSITA Arabako Foru Aldundiak VI-10.156 matrikulako ehiza-barrutiaren esleipenerako baldintza ekonomiko-administratiboen pleguak onartzeko egin duen eginbidea,

IKUSITA irailaren 7ko 79/2023 Foru Agindua, "Gorbea" izeneko ehiza-barrutia berritzea onartzen duena (matrikula: VI-10.156), eta aurkeztutako Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoaren (EAPT) onespena, eta horrekin guztiarekin bat,

EGIAZTATUTA bete dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legean, Arabako Lurralde Historikoko Ehizari buruzko ekainaren 14ko 8/2004 Foru Arauan eta diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoarekin BAT,

Proposamena AZTERTUTA, Udalbatzako kideek gaia eztabaidatu dute, eta **Udalbatzaren** Osoko Bilkura ados azaldu da **aho batez**, bertaratutako kide guztien aldeko botoarekin: EHBILDU ZUIA (6), EAJ-PNV ZUIA (4) eta ZBG-ZNU (1). Horrenbestez, Udalbatzak honakoa **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.** – Gorbea izeneko VI-10.156 ehiza-barrutiaren ehiza-aprobetxamendua ZUIA-SPORT EHIZA KLUBARI (IFZ: G01158914) esleitzea, 2023ko uztailaren 13ko osoko bilkuran onartutako plegu tekniko eta administratiboekin bat. Klub horren ordezkari gisa JESUS LAFUENTE MARTINEZ DE CESTAFE jauna (NAN zk.: 16277171W) arituko da, jakinarazpenetarako bien helbidea honakoa izanik: Domingo de Sautu kalea 96, 01130 Murgia; eta telefono-zenbakia: 649 940 363.

Esleipenak bost urteko indarraldia izango du, behin betiko esleipena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Beraz, 2028-2029 ehiza-denboraldirako berritu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 32. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontuan hartuta ehiza-barrutiaren ehiza-aprobetxamenduaren errentamendu-urte bakoitzeko finkatutako



prezioa hamasei mila eurokoa (16.000,00 €) dela, gehi dagokion BEZA (3.360,00 €), eta lizitazio-zenbateko hori urtero berrikusiko dela, aurreko urteari aplikatuz Euskal Autonomia Erkidegoko KPIaren indize orokorrak izandako ehuneko-aldaketa, % 2,5eko gehienekoarekin.

**BIGARRENA.** - Ebazpen hau esleipendunari jakinaraztea, eta kontratua sinatzeko epea jartzea, gehienez ere 15 egun baliouduneko epean, aldeztu aurretik honakoak aurkeztu beharko dituelarik:

- Behin betiko bermea, urteko esleipen-prezioaren ehuneko bostekoa (BEZik gabe).
- Erantzukizun zibileko aseguruaren eta oihanzaingo-kontratuaren poliza.

Gainera, esleipendunak kontratua sinatu eta lehenengo urtean ordaindu beharko ditu espedientea izapidetzeari dagozkion gastuak, Administrazio Klausulen Pleguan ezarritakoaren arabera.

**HIRUGARRENA.** - Esleipen hau kontratatzailearen profileen argitaratzeko agintzea, gehienez ere 15 eguneko epean, bai eta ALHAOn ere.

**LAUGARRENA** - Kontratuaren oinarrizko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

**BOSGARRENA.** - Erabaki hau administrazio-batzar interesdunei jakinaraztea.

**SEIGARRENA.** - Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari esleipenaren aktaren eta ziurtagiriaren kopia bidaltzea.

**ZAZPIGARRENA.** - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordeztu ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan.

**5.- ZUIAKO KONTZEJUEKOTAKO ARGITERIA PUBLIKOAREN GASTUAREN DEFIZITA FINANTZATZEKO 2023KO**



## EKITALDIRAKO EZOHIKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA.

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta 2023ko irailaren 12ko Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du,

Proposamena AZTERTUTA, Udalbatzako kideek gaia eztabaidatu dute, eta **Udalbatzaren** Osoko Bilkura ados azaldu da **aho batez**, bertaratutako kide guztien aldeko botoarekin: EHBILDU ZUIA (6), EAJ-PNV ZUIA (4) eta ZBG-ZNU (1). Horrenbestez, Udalbatzak honakoa **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.** – Zuiako kontzejuetako argiteria publikoaren gastuaren defizita finantzatzeko 2023ko ezohiko dirulaguntzaren deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea. Hona hemen deialdiaren xehetasunak:

### **"CONVOCATORIA Y BASES REGULADORAS DE SUBVENCIÓN EXTRAORDINARIA PARA LA FINANCIACIÓN DEL DÉFICIT EN EL GASTO DE ALUMBRADO PÚBLICO DE LOS CONCEJOS DE ZUIA, EJERCICIO 2023.**

#### **1. Objeto de la convocatoria.**

*La presente convocatoria tiene por objeto financiar el déficit económico en que incurrieron las entidades locales del municipio en el ejercicio 2022 mediante subvenciones que, dentro de los límites presupuestarios, contribuyan a ayudar económicamente a éstas por el incremento de los precios en el alumbrado público.*

*A los efectos dispuestos en esta convocatoria, se entiende por déficit económico en alumbrado público la diferencia entre la subvención total otorgada y la subvención abonada tras el prorrateo realizado por el incremento de los precios.*

#### **2. Procedimiento de concesión.**

*El procedimiento de concesión de estas ayudas es el de concurrencia no competitiva en modalidad de prorrateo, es decir, que en caso de no existir disponibilidad presupuestaria para atender a todas las solicitudes de ayuda que sean admisibles y en función de los conceptos susceptibles*



de ser subvencionados, se calculará un coeficiente de prorrateo en base al presupuesto total de la subvención.

### **3. Partida presupuestaria y cuantía de la convocatoria.**

El importe de la convocatoria asciende a la cantidad de 43.000,00 euros.

Las subvenciones correspondientes a esta convocatoria se abonarán con cargo a la partida presupuestaria número 165.434.010 denominada "Subvención extra déficit alumbrado público JJAA" para el ejercicio 2023.

### **4. Entidades beneficiarias.**

Podrán ser beneficiarias de estas subvenciones todas las entidades locales o juntas administrativas que se encuentren legalmente constituidas en el municipio de Zuia.

Las entidades beneficiarias deberán hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con el Ayuntamiento, Hacienda y con la Seguridad Social, con carácter previo tanto al momento de la resolución de concesión como al del abono de la subvención.

El Ayuntamiento deberá comprobar que la solicitante cumple los requisitos de estar al corriente en el cumplimiento de esas obligaciones, salvo que dicha entidad se opusiera a ello, en cuyo caso deberá aportar la documentación acreditativa de este hecho, tal y como regula artículo 28.2 de la Ley 39/2015 (modificado por la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, en su disposición final duodécima).

### **5. Gastos subvencionables y periodo: Déficit económico en alumbrado público 2022.**

Gastos subvencionables: déficit económico del alumbrado público 2022 de acuerdo a la tabla del anexo primero de la presente convocatoria.

A los efectos dispuestos en esta convocatoria, se entiende por déficit económico en alumbrado público, el importe dejado de abonar respecto al total de la subvención otorgada (correspondiente al 95 por ciento del gasto total) en el pasado ejercicio tras el prorrateo realizado por el incremento de los precios.

Periodo: se subvencionarán los gastos correspondientes al periodo comprendido entre el mes de diciembre de 2021 y el de noviembre de 2022 según la documentación que obra en el Ayuntamiento.

### **6. Porcentajes y cuantía máxima de la subvención.**

Se subvencionará el 100 por ciento del gasto subvencionable, siempre teniendo en cuenta que el importe se calculará respecto del total de la subvención otorgada (correspondiente al 95 por ciento del gasto total) y reducida por el prorrateo de la subvención debido al incremento de los precios.



*Las subvenciones ahora convocadas serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por otras instituciones, públicas o privadas, para el mismo objeto, salvo cuando las mismas superen el 100 por cien del déficit acreditado. En este caso, la aportación con cargo al ayuntamiento se minorará hasta ese 100 por cien.*

*El cómputo total de las subvenciones no podrá superar en ningún caso la cantidad asignada en la partida presupuestada para tal fin en el presupuesto general del Ayuntamiento de Zuia.*

*Al ser el procedimiento de concesión de las ayudas el de concurrencia competitiva en modalidad de prorrateo, en el caso de que éste sea aplicable se realizará distribuyendo el importe total disponible entre todas las solicitudes aceptadas.*

#### **7. Presentación de solicitudes.**

*Las solicitudes, dirigidas al Ayuntamiento de Zuia, deberán presentarse siguiendo lo establecido en el artículo 16.4 de la Ley 29/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las administraciones públicas.*

*La presentación de solicitudes para optar a estas subvenciones comporta la aceptación expresa y formal de lo establecido en las presentes bases.*

#### **8. Plazo de presentación.**

*El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días naturales contados a partir del siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el BOTA.*

#### **9. Documentación requerida.**

- *Solicitud oficial.*
- *En caso de que el concejo no esté de acuerdo con la cantidad de concesión propuesta establecida en el anexo primero de esta convocatoria, documentación justificativa de la misma, facturas originales y fotocopias o certificado/resumen acreditativo del periodo y gasto emitido por la compañía suministradora para su compulsión, de las facturas correspondientes a dicho gasto referidas al periodo comprendido entre el mes de diciembre de 2021 y el de noviembre de 2022.*
- *Igualmente, deberán acreditar estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la seguridad social y con hacienda, o en su caso, autorizar al ayuntamiento su consulta.*
- *La entidad local deberá remitir una declaración jurada referida a la obtención o no de otras subvenciones o ayudas para la misma finalidad procedentes de cualesquiera administración, organismo o entes públicos. En el caso de haberse obtenido alguna otra subvención deberá indicarse la cantidad recibida y la administración otorgante, debiendo presentar, así mismo, justificante que certifique la veracidad de dichos datos.*



*Las entidades solicitantes dispondrán de un máximo de diez días naturales para subsanar las anomalías advertidas y, en caso de que así no lo hiciese, se entenderá por desistida la solicitud, sin más trámites, si bien, por causas debidamente justificadas, podrá ampliarse dicho plazo.*

#### **10. Responsabilidad en la financiación.**

*Las entidades locales beneficiarias de las ayudas que se concedan con cargo a estas Bases Regulatoras serán responsables del cumplimiento de todas las condiciones previstas para su otorgamiento.*

#### **11. Estudio y resolución de solicitudes.**

*El estudio y, en su caso, concesión o denegación de las subvenciones, se realizará una vez terminado el plazo de presentación de solicitudes, dentro de la comisión informativa integrada por todos los componentes de los grupos municipales con representación en el ayuntamiento.*

*La propuesta de resolución definitiva, será emitida por el órgano colegiado, y el alcalde mediante resolución motivada que aprobará definitivamente la concesión de subvención. Ésta deberá contener como mínimo el nombre de la entidad solicitante o relación de entidades solicitantes a las que se concede la subvención y la desestimación del resto de solicitudes.*

*Igualmente, en la resolución se pondrán de manifiesto a las interesadas, los recursos que contra la misma proceda, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.*

*La resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo conforme a lo previsto en el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses desde su notificación.*

*En el caso de no impugnarla directamente, podrá ser recurrida potestativamente ante el mismo órgano que la dicto en el plazo de un mes, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las administraciones públicas.*

#### **12. Abono de la subvención.**

*Por tratarse de una subvención cuya justificación obra en poder de la administración convocante se abonará en un único pago y sin más trámite, en la próxima orden de pago que se realice, tras la emisión de la resolución de la convocatoria.*

#### **13. Obligaciones de la entidad beneficiaria. Pérdida de la subvención.**



*La entidad preceptora de la subvención tendrá la obligación de cumplir con las disposiciones establecidas en la presente convocatoria y con lo preceptuado en la ordenanza municipal reguladora de subvenciones y ayudas.*

*Las entidades beneficiarias podrán llegar a perder las subvenciones concedidas en esta convocatoria, previa apertura de expediente, en los siguientes supuestos:*

- Haber falseado los datos formulados en la solicitud y documentación aportada.*
- Cuando finalizado el plazo para la presentación de documentación ante el requerimiento explícito del mismo, ésta no sea presentada.*
- En general, el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes bases o en la concesión de subvención.*
- La pérdida de la subvención, llevará consigo la obligación de devolver las cantidades percibidas, mediante transferencia a la cuenta del Ayuntamiento de Zuia. En el caso de que una entidad no devolviera voluntariamente la cantidad solicitada, quedará excluida de percibir subvención alguna del ayuntamiento, pudiendo el ayuntamiento reintegrarse dichas cantidades.*

*En resumen, procederá el reintegro de las cantidades percibidas en los casos establecidos en la Norma Foral 11/2016 de subvenciones del Territorio Histórico de Álava y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. El reintegro de las cantidades percibidas sobre la subvención aprobada tendrá la consideración de ingresos de derecho público y su cobro se realizará conforme a lo previsto en el título II, capítulo I, de la Norma Foral 53/1992 de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario.*

#### **14. Modificación de la subvención.**

*Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrá dar lugar a la modificación de la resolución.*

#### **15. Compatibilidad de las subvenciones.**

*La concesión de estas ayudas será compatible con cualquier otro tipo de subvención o ayuda que el concejo pudiera obtener de cualquier otra institución, entidad u organismo, ya sean de carácter público o privado.*

*En ningún caso el importe de la subvención concedida por este ayuntamiento podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas concedidas por otra administración, entidad u organismo público, supere el coste de la actividad desarrollada por la beneficiaria.*



### 16. Interpretación.

Cualquier duda que surgiera con relación a la interpretación de estas bases, será resuelta por la alcaldía previo informe de secretaría y dictamen de la comisión informativa correspondiente.

### 17. Infracciones y sanciones.

Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones definidas en el capítulo IV de la ordenanza general reguladora de subvenciones y ayudas y serán sancionadas con arreglo al procedimiento establecido en la misma.

### 18. Legislación supletoria.

En lo no previsto en las presentes bases se estará a lo dispuesto en la ordenanza general reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Zuia y a la ley general de subvenciones y su reglamento.

### 19. Publicidad.

La presente convocatoria será publicada en el BOTHA. Asimismo, se expondrá en la página web del Ayuntamiento de Zuia: [www.zuia.eus](http://www.zuia.eus).

## I. ERANSKINA. Emakida-proposamena

ESKATZAILEA	2022KO ARGITERIA PUBLIKOKO KONTZEJUEEN GASTU JUSTIFIKATUAK	EMANDAKO GUZTIZKO DIRULAGUNTZA (EHUNEKO 95)	HAINBANATU ONDOREN ORDAINDUTAKO DIRULAGUNTZA, GUZTIRA (EHUNEKO 52,98)	2022AN EGIAZTATUTAKO DEFIZIT EKONOMIKOA: EMAKIDA PROPOSAMENA
<b>AMETZAGAKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	12.868,20	12.224,79	6.476,69	<b>5.748,10</b>
<b>APERREGIKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	4.474,51	4.250,78	2.252,06	<b>1.998,72</b>
<b>BITORIANOKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	27.826,70	26.435,35	14.005,44	<b>12.429,91</b>
<b>DOMAIKIAKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	4.938,97	4.692,02	2.485,83	<b>2.206,19</b>
<b>GILIERNAKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	3.295,47	3.130,69	1.658,63	<b>1.472,06</b>



<b>JUGOKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	3.344,55	3.177,32	1.683,34	<b>1.493,98</b>
<b>LUKIANOKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	4.039,24	3.837,27	2.032,98	<b>1.804,29</b>
<b>MARKINAKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	6.808,69	6.468,25	3.426,87	<b>3.041,38</b>
<b>SARRIAKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	16.749,92	15.912,41	8.430,39	<b>7.482,02</b>
<b>ZARATEKO</b> ADMINISTRAZIO BATZARRA	4.560,89	4.332,84	2.295,53	<b>2.037,31</b>
<b>GUZTIRA</b>				<b>39.713,96</b>

**BIGARRENA.** - Dirulaguntza horiek 2023ko ekitaldirako "Argiteria publikoaren defiziterako aparteko dirulaguntza administrazio-batzarrentzat" izeneko 165.434.010 aurrekontu-partidaren kargura ordaintzea, 43.000,00 euroko zuzkidura duena.

**HIRUGARRENA.** - Deialdi hori oinarriekin bat etorritik eta horiekin batera Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen eta Zuiako Udalaren webgunean ([www.zuia.eus](http://www.zuia.eus)) argitaratzea.

**LAUGARRENA.** - Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezi ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzen.

## 6.- TXOSTENAK.

INMACULADA ELORZA BERGARA zinegotziak hitza hartu, eta ikasturtearen hasieran abian jarri diren udal-zerbitzuen berri eman du: musika-eskola, ordutegi hedatuko zerbitzua, ludoteka eta udal-liburutegia. Adierazi du gobernu-taldeari jakinaraziko zaizkiola sexuaren arabera bereizitako matrikulazioen behin betiko zenbakiak, hurrengo Gai Orokorren Informazio Batzordean.



ALVARO RUIZ OTXOA DE ERIBE zinegotziak ordutegi luzatuko zerbitzuko begiraleei buruz galdetu du. ALKATEAK azaldu du gaur egun begirale bakarra dagoela matrikulazio-kopuru txikiagatik.

MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA zinegotziak galdetu du ea ludotekan plaza kopurua mugatua den. INMACULADA ELORZA BERGARA zinegotziak eta ALKATE-UDALBURUAK adierazi dute leku-ratioa dela-eta 12 parte-hartzaile baino ez daudela. Ondoren, MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA eta ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA zinegotziek izena emateko prozedurari buruz galdetu dute. INMACULADA ELORZA BERGARA zinegotziak eta ALKATE-UDALBURUAK esan dute bere garaian prozedura zozketa bidez egiten zela, gaur egun ez bezala, inskripzio-ordenaren arabera egiten baita. Azaldu dute izena emateko bi prozedurek alde onak eta txarrak dituztela. Udalbatzak gaia eztabaidatu du.

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA zinegotziak hitza hartu, eta EUSKAL FONDOAREN proiektuen berri eman dio Udalbatzari, Zuiako Udalak proiektu horietan parte har lezakeela gaineratuz. Udalbatzak, gaia eztabaidatu ondoren, honako konpromiso hau hartu du, betiere kontuan hartuta Osoko Bilkurak konpromiso hori 2023ko urrian finkatu beharko duela:

Erreferentzia	Izenburua	Finantzatzeko konpromisoa, Osoko Bilkuraren ERabakiaren zain
p356	La Culebra - La Argentina komunitateetan (San Carlos, Nikaragua) edateko uraren eta saneamenduaren sistema hobetzea. 1. fasea (1/2)	282,37 euro
p361	Zahartze osasuntsuko eta parte-hartze sozialeko estrategiak sendotzea, Habana hiriko Historialariaren Bulegoak garatzen duen Pertsona Heldu Nagusien Arretarako Programan	13.286,39 euro
p345	Suchitotoko (Cuscatlán departamendua, El Salvador) gazteen ekintzailtzarako prestakuntza. II. fasea (2/2)	10.431,24 euro



## 7.- GALDERAK ETA ESKAERAK

MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA zinegotziak hitza hartu, eta Zuian geltokia duen autobus-zerbitzuko baliabideei buruz galdetu du, agian zerbitzu hori eskasa dela gaineratuz. ALKATEAK gaia kontuan hartu, eta adierazi du Arabako Foru Aldundiak kontratuak aldatzeko duen tartearen mende dagoela. Udalbatzak gaia eztabaidatu du.

MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA zinegotziak hitza hartu, eta adierazi du hainbat kexa jaso dituela udan Murgian dagoen zarataren inguruan, zehazki, goizaldeko ordu handietan izaten diren futbol-partidei buruzko kexa bat helarazi zaiola. ALKATEAK hitza hartu, eta gobernu-taldeari ere helarazi zaion kexa bat dela adierazi du. ALKATEAK esan du aztertu egiten ari direla zelaiko argiak ordulari batekin arautzeko aukera, 00:00ak aldera itzal daitezen eta, horrela, arazo horren zati bat saihestu ahal izan dadin.

MARIELA BARAÑANO GOIRIZELAIA zinegotziak hitza hartu, eta ur-biltegira doan bideko pasabidea zikin dagoela adierazi du. ALKATEAK esan du enpresa batekin izapidetzen ari den gaia dela.

Hitz egiteko txanda 19:53an eskaini zaie bertaratutakoei.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, ALKATE-UDALBURU jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:08an, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Idazkaritza,